

KRONIKA.NET

**SANTIO JAIK****Jendetza ibili da aurten Astigarraga eta Aranoko festetan**

Leporaino bete zen Astigarragako plaza, Santa Ana egunean. Arkume jateak eta azokak elkartu zuen jende gehien, Aranon.

2013/07/29 - Astelehena

Eguraldia bikaina, Santio eguna festa eta asteburua ere tarteko. Faktore guztiak aldeko izan dituzte aurten, Santio jaietan. Jendetza ibili da bai Astigarragan eta baita Aranon ere. Egun guztietan izan da festa, baina izan dira egun klabeak, jende gehiago mugitu dutenak. Festak atzo bukatu ziren, bi herrietan.

Herri kirolak, Astigarragan

Bertakoak egunero ibili dira dantza, barre, bazkari eta algaran. Ingurukoentzat ordea, Santa Ana eguna izan ohi da preziatuena. Idi dema, azoka, sagardo dastaketa... goiz pasa joan ziren asko eta momenturen batean txiki geratu zen Astigarragako plaza.

Asteburua klabea, Aranon

Festak Santio egunean hasi baziren ere, ostiral eta larunbatean ibili da jende gehien Aranon. Ostiral arratsaldean azokak eta sagardo dastaketak mugitu zuen jendea; eta larunbatean, tradizioa bihurtzen ari den arkume jateak.

 **Zabaldu!**

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

web mapa | kontaktua

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005



**Axeri
bila 2013
klik hemen**



**Liburua
erosteko,
klik hemen**



XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen
da Hernaniko
sagardo berria!

Gehigarria: Gabonak

GEHIGARRIA: GORA